



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2010EKO OTSAILAREN 18KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL 18 DE FEBRERO DE 2010

1. Lehenbailehen eztabaidatzeko Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten Lanbide Heziketako irakasleei konponbide bat eskaintzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0240]

Jatorrizko testua onetsi da.

21/2010

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio berma dezala LHko ezein irakaslek ez duela bere lanpostua galduko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe edukitzeagatik, eta horretarako neurriak har ditzala sailaren lan-eskaintza publikoetan.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio egokiak iruditzen zaizkion neurri guztiak har ditzala LHko irakasleen kolektiboa liberatu ahal izateko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko".

2. (deialdiko 4. puntua) Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, osasun-baliabide eta -azpiegituren mapa egiteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0177]

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

1. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a una solución para el colectivo de profesores de Formación Profesional sin perfil. [09\11\02\01\0240]

Aprobado el texto original.

21/2010

"1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco a garantizar que ningún profesor de FP pueda perder su puesto de trabajo por la no acreditación de perfil, tomando las medidas oportunas en las ofertas públicas de empleo del departamento.

2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco a tomar cuantas medidas considere oportunas para facilitar la liberación del colectivo de profesores de FP para obtener los perfiles lingüísticos".

2. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la elaboración de un mapa de recursos e infraestructuras sanitarias. [09\11\02\01\0177]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV





22/2010

"Eusko Legebiltzarrak Osasun eta Kontsumo Sailari eskatzen dio, Euskadiko Osasun Baliabide eta Azpiegituren Mapa egin eta aurkeztu dezala Eusko Legebiltzarrean, 2010eko uztailaren 1a baino lehen.

Halaber, Osasun eta Kontsumo Sailak Eusko Legebiltzarrera igorriko ditu Mapa hori eguneratzeko egiten diren azterketa guztiak".

3. (deialdiko 2. puntua) Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko armari ofiziala aldatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0148]

Ezetsi egin da.

4. (deialdiko 3. puntua) Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua abian jartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0172]

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

23/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio burutu dezala bere osoan beharrezko tramitazioa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua ahalik eta lasterren martxan jartzea segurtatzeko. Nolanahiko gisan ere, Kontseilu horrek oraingo bilkura-aldiaren barruan beharko du eraturik egon".

22/2010

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Sanidad y Consumo a elaborar y presentar al Parlamento Vasco, antes del 1 de julio de 2010, el Mapa de Recursos e Infraestructuras Sanitarias de Euskadi.

Así mismo, el Departamento de Sanidad y Consumo remitirá al Parlamento Vasco cuantas actualizaciones pueda tener dicho Mapa".

3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, sobre modificación del escudo oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco. [09\11\02\01\0148]

Rechazada.

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, para la puesta en marcha del Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo. [09\11\02\01\0172]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV

23/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a culminar la tramitación necesaria para asegurar la puesta en marcha del Consejo de Participación de Víctimas del Terrorismo a la mayor brevedad posible. En cualquier caso, dicho Consejo deberá estar constituido dentro del actual periodo de sesiones".





5. Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, oroimen historikoari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0180]

ES, ETP, Mistoa-EA eta Mistoa-UPyD taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

24/2010

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantendu eta areagotu ditzala oroimenaren politika eraikitzeko ekintzak, politika horren oinarritzat hartuz bai historiaren ezagutza, bai Gerra Zibila eta diktadura frankista sufritu zutenen duintasuna eta oroimena berreskuratzea eta bai printzipio demokratikoen defentsa.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio behar diren deialdi publikoak ezar ditzala ikerketa historikoa sustatzeko eta errepresio frankista sufritu zutenen oroipenak jasotzeko.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bideratu ditzala 280/2002 Dekretuaren onuradunei kalte-ordainak pagatzeko behar diren diru-funtsak.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantendu dezala Aranzadi Zientzia Elkartearekin duen hitzarmena, eta behar diren baliabideak jar ditzala hobien mapa osatzeko eta exekutututako edo desagertutako pertsonak identifikatzeko.
5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, estatu-kolpe frankistaren eta Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena dela eta, egin diezaiela omenaldi bana gertaera haietako biktimei eta bultzatu ditzala oroimen historikoa mantentzen eta balio demokratikoak transmititzen lagunduko duten ekitaldiak.

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre la memoria histórica. [09\11\02\01\0180]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV, Mixto-EA y Mixto-UPyD.

24/2010

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener e intensificar las acciones destinadas a construir una política de la memoria basada en el conocimiento de la Historia, en la recuperación de la dignidad y la memoria de quienes padecieron la guerra civil y la dictadura franquista, así como en la defensa de los principios democráticos.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a establecer las convocatorias públicas pertinentes para fomentar la investigación histórica y recoger las memorias de quienes padecieron la represión franquista.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a habilitar los fondos necesarios para el pago de indemnizaciones a los beneficiarios del Decreto 280/2002.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener el convenio con la Sociedad Aranzadi y a que destine los recursos necesarios para completar el mapa de fosas, e identificar a las personas ejecutadas o desaparecidas.
5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que con el motivo del 75º aniversario del golpe de estado franquista y del bombardeo de Gernika lleve a cabo sendos homenajes a las víctimas de aquellos sucesos e impulse actos que contribuyan a mantener la memoria histórica y a transmitir los valores democráticos.





6. (deialdiko 8.a) Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, hirigintza-plan batzuen ingurumen-egokitzapenari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0178]

ES taldeak osoko zuzenketa onetsia

25/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Legebiltzar honetara bidalitako legegintzaegutegian jasota dagoenari jarraiki, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aldaketari ekiten dihonean, egin dezala ingurumenebaluazioa behar duten planen arau-egokitzapena eta argitzea".

6. (8 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la adecuación ambiental de determinados planes urbanísticos. [09\11\02\01\0178]

Aprobada enmienda de totalidad del grupo SV.

25/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, dentro de su intención de proceder a la modificación de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente, recogida en el calendario legislativo remitido a esta Cámara, proceda a la adaptación normativa y clarificación de los planes que deban ser sometidos a evaluación ambiental".

7. (deialdiko 6.a) Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Iruña Okan espetxe bat eraikitzekeo proiektuari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0219]

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

26/2010

"1. Eusko Legebiltzarrak auzibide-jarduerekiko begirunea erakusten du. Izan ere, administrazioarekiko auzien prozesu bat dagoenez eta eginkizun juridikzionaletan interferentziatzat jo litezkeen erabakiak saiheste aldera, Eusko Legebiltzarrak uste du auzitegiek erabaki behar dutela Iruña Okan espetxe bat eraikitzearen legezotasunari buruz, baita lanak aldi baterako bertan behera uzteari buruz ere.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die lehenatasuna eman diezaiotela,

7. (6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, relativa al proyecto de construcción de un centro penitenciario en Iruña de Oca. [09\11\02\01\0219]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

26/2010

"1. El Parlamento Vasco muestra su respeto a las actuaciones judiciales por lo que, habida cuenta de la existencia de un procedimiento contencioso-administrativo y para evitar pronunciamientos que pudieran considerarse interferencias en las funciones jurisdiccionales, considera que han de ser los tribunales quienes se pronuncien sobre la legalidad de la construcción de un centro penitenciario en Iruña de Oca, así como sobre la eventual suspensión de la obra.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a que, en el marco del desarrollo estatutario y en





Estatutuaren garapenean eta eskualdatu gabe dauden eskuduntzen negoziazioan, euskal espetxeetako hezkuntza-gaiak, osasun-erregimena eta zerbitzu sozialak eskualdatzeari, zertarako eta presoen bizi- eta osasun-baldintzak hobetzeko, askatasuna kentzen duten zigorren orde z neurri alternatiboak betetzea bultzatzeko eta gizarteratze-bideak, horretarako behar diren baliabideak eta guzti, errazteko.

3. Eusko Legebiltzarrak Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio baimena eman diezaiola Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari Langraizeko espetxea bisitatzeko, eraikinen egungo egoera zein den eta zigorra han betetzen ari diren pertsonen bizi-baldintzak eta pertsonak garatzen ari diren programak zeintzuk diren ezagutze aldera.
4. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, behin Iruña Okan Zaballako espetxe berriaren obrak eta martxan jartzea bukatuz gero, itxi dezala udal horretan orain jardunean den presondegia".

8. (deialdiko 7.a) Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Planari buruz. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0201]

EA-NV, ES eta Aralar taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

27/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari ondokoa eskatzen dio:

1. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ekin diezaiola lehenbailehen Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko prozedurari.

la negociación de transferencias pendientes, den prioridad a la transferencia de las materias de educación, régimen sanitario y servicios sociales de las prisiones vascas, con el objeto de mejorar las condiciones de vida y salud de las personas presas, favorecer el cumplimiento de las medidas alternativas a penas privativas de libertad y facilitar los itinerarios de reinserción social con los recursos precisos al efecto.

3. El Parlamento Vasco insta a Instituciones Penitenciarias a que autorice la visita de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco al centro penitenciario de Nanclares de Oca, con el objeto de conocer la situación actual de los edificios, así como las condiciones de vida y los programas que desarrollan las personas cumplen su condena en el mismo.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que, concluidas las obras y puesto en marcha el nuevo centro penitenciario de Zaballa en Iruña de Oca, proceda a la clausura de la prisión actualmente en funcionamiento en dicho municipio".

8. (7 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola. [09\11\02\01\0201]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y Aralar.

27/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A que el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, aborde inmediatamente el procedimiento de modificación del Plan de Ordenación de Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.





2. Aldaketa horrek jasoko du, sailak egokitzat jotzen dituen atalez gain, Zallobentako harrobiko ustiapena Parke Naturalaren mugen barne debekatzea, hala nola, babesten diren ingurumen-balioekin bateragarriak ez diren erauzketa-jarduerak debekatzea, bai eta gaur egun ustiatu gabe dauden meatze-eremuen berreskuratzeko lanak definitzea".

2. Dicha modificación, además de los apartados que la consejería estime pertinentes, establecerá la prohibición de la explotación de la cantera de Zallobenta dentro de los límites del Parque Natural, la prohibición de las actividades extractivas que resulten incompatibles con los valores ambientales que se protegen, así como la definición de las labores de recuperación de los espacios mineros sin explotación en la actualidad".

